

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2021 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroaren araudia

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduak (horren bidez, nekazaritza produktuen merkatuen antolakunde erkidea sortzen da eta indargabetu egiten dira 922/72 (EEE) Erregelamendua, 234/79 (EEE) Erregelamendua, 1037/2001 (EE) Erregelamendua eta 1234/2007 (EE) Erregelamendua) sistema berri bat ezarri zuen Europar Batasunean mahastien landaketa kudeatzeko, baimenetan oinarritua. Gainera, araudi hori osatzen dute honako hauek: Batzordearen abenduaren 15eko 2015/560 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, zeinaren bidez osatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamendua, mahatsondoak landatzeko baimenen araubideari dagokionez; eta Batzordearen apirilaren 7ko 2015/561 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak, mahatsondoak landatzeko baimenen araubideari dagokionez; bai eta Batzordearen 436/2009 (EE) Erregelamendua ere, mahastien erregistroak izan beharreko informazioari dagokionez.

Bestalde, uztailaren 31ko 740/2015 Errege Dekretuak, mahastizaintza ekoizpenaren ahalmena arautzen duenak (uztailaren 28ko 772/2017 Errege Dekretuak, urriaren 29ko 1338/2018 Errege Dekretuak eta irailaren 20ko 536/2019 Errege Dekretuak aldatua), mahastiak landatzeko araubide juridikoa, Europar Batasuneko araudiaren ondorio dena, ezartzen du.

Arabako Lurralde Historikoan, mahastien erregistroa giltzarria da mahastien kudeaketarako, eta Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 109/1998 Foru Dekretuan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 8ko 51/2002 Foru Dekretuan dago araututa. Araudi hori, baina, zaharkituta dago, bereziki lehen adierazitako araudian araututako mahastizaintzaren ahalmena kudeatzeko sistema berria ezarri zenetik.

Kontuan izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen Legeak 7b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiari dagokiola Arabako Lurralde Historikoan mahastizaintza eta enologia garatu eta betearazteko eskumena, Europar Batasuneko araudi berrira egokitu behar dira tradizioz mahastizaintza ekoizpenaren ahalmena arautu duten Arabako Foru Aldundiaren xedapenak, eta baldintza berezi jakin batzuk ezarri behar dira Arabako Lurralde Historikoko Mahastien erregistroa kudeatzeko. Eta, hobeto ulertu eta aplikatu ahal izateko, eraginkorragotzat jotzen da berariaz indargabetzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 109/1998 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Foru Aldundiaren Mahastien Erregistroko edozein atal osorik edo haien zati bat aldatzen duten ekintzek bete beharreko araudia, eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 8ko 51/2002 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baitira mahastiak landatzeari eta birlandatzeari, mahasti landaketako eskubideen erreserbari eta Arabako Mahastien Erregistroari buruzko arauak, eta beste foru dekretu batean jasotzea Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroaren kudeaketa arautuko duten arauak.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordea entzun da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Onestea Arabako Lurralde Historikoko mahastien erregistroa kudeatzeko araudia, foru dekretu honen eranskinean jasotako artikuluen arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu honetan ezarritako manuak berau indarrean sartzen denetik aurrera hasitako Mahastien Erregistroaren kudeaketei aplikatuko zaizkie. Foru dekretu hau indarrean sartzen den unean hasita eta bukatu gabe dauden kudeaketei hasi zirenean indarrean zeuden arauak aplikatuko zaizkie, burutzen diren arte.

Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik hasitako kudeaketak, baldin eskatzailearen jarduerarik ezagatik 7.5 eta 13.5 artikuluetan ezarritako epeak betetzen badira, ofizioz ezeztatuko dira, artikulua horretan xedatutakoaren arabera. Epe horiek igaro ondoren berriz heltzen bazaie, foru dekretu honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzea foru dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak; bereziki, honako hauek:

– Diputatuen Kontseiluaren 109/1998 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez onesten baita Foru Aldundiaren Mahastien Erregistroko edozein atal osorik edo haien zati bat aldatzen duten ekintzek bete beharreko araudia.

– Diputatuen Kontseiluaren 51/2002 Foru Dekretua, urriaren 8koa, mahastiak landatzeari eta birlandatzeari, mahasti landaketako eskubideen erreserbari eta Arabako Mahastien Erregistroari buruzko arauak ezartzen dituena.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO MAHASTIEN ERREGISTROAREN ARAUDIA

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Mahastien Erregistroaren izaera eta ezaugarriak ezartzea Arabako Lurralde Historikoaren esparruan, bai eta erregistroaren atalak osorik edo zati batean aldatzen dituen edozein ekintzak edo kudeaketak bete beharreko arauak eta prozedurak ere.

2. artikulua. Izaera juridikoa eta aplikatzeko araubide juridikoa

2.1 Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroak EBko araudian eta aplikatzeko diren Estatuko eta autonomiako araudian arlo hori arautzen duen araubide juridikoari jarraituko dio.

2.2. Mahastien Erregistroa eragin juridiko pribaturik ez duen administrazio erregistroa da. Mahasti bat Mahastien Erregistroan sartze hutsak ez du esan nahi haren legezko egoeraren gaineko erabakirik hartu behar denik. Legezkozat hartzeko, mahasti horren titularrek indarreko legediak emandako eta jurisdikzio zibilak aitortutako eskubideak izan beharko dituzte.

2.3. Mahastien Erregistroa eratzen den bitartean jasotzen den informazioa, bere antzintasunarengatik ezin bada berariaz egiaztatu eta interesdunek emandakoa bakarrik bada, ez du esan nahi baliozkoa denik. Horrenbestez, ez du eskubide berezirik ere sortzen; pertsona horiei dagokie datuak egiazkoak direla ziurtatzea, eta hala badagokie, egindako alegazio edo proposatutako aldaketan eta geroago egiten dituzten adierazpen eta eskaeren erantzukizuna.

3. artikulua. Mahastien Erregistroaren edukia

3.1. Mahastien Erregistroak Arabako Lurralde Historikoaren mahasti ahalmenari buruzko informazioa jasotzen du, eta beraz, eguneratuta mantentzeaz gain, fidagarria ere izan behar du. Inskribatuta dauden titularrek indarrean dauden arauzko xedapenak bete beharko dituzte beti, inskripzioari, haren baja emateari eta eragiten dien erregistroko informazioaren aldaketari dagokienez.

3.2 Gutxienez, datu hauek jaso beharko ditu:

- Inskribatutako pertsonaren datu pertsonalak.
- Inskribatutako mahasti lurzatiak, haien jabea ere adieraziz.
- Aplikatzeko araudiaren arabera, aitortutako mahasti azalera.
- Aldaera, txertaka, landaketaren esparruan, eroateko modua (ontzian, besorako sistema eta bestelakoak) eta zer urtetan landatu den.
- Birlandatzeko eskubideak eta baimenak, eskatutako eta emandako landatzeko baimenak eta mahatsondoak erauzteko baimenak, eta alde zuzeneko birlandaketak emateagatik erauzteko dituen betebeharrak.
- Nekazaritzako Lurzati Informazio Geografikoko Sistemako (SIGPAC) inskribatutako esparruak zein nekazaritza ustiatzeari dauden lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Ustiatzeari Erregistroa arautzen duen araudian ezarritakoari jarraituz.
- Prozedura judicial edo administrazio prozedura baten barruan hartutako kautelazko neurriak.
- Kalitatezko ardoren batean egindako inskripzioa, edo mahaiko ardo gisa egindakoa.
- Mahasti esperimentaleko azalera izateko edo autokontsumorako landaketa izateko egindako inskripzioa.
- Berregituratu den mahatsondo azalera.

– Esperimentaziorako landatutako azalerak direlako edo txertaketen mahatsondo hazkuntzarako landatutako azalerak direlako, baimenen araubidearen onurak jasotzen dituzten mahatsondo azalerak.

– 2015/12/31 baino geroago baimenik gabe landatutako mahatsondo azalerak eta baimenik gabeko azalera erauziak.

– 2016/01/01 baino lehen landatzeko eskubiderik gabe landatutako mahatsondo azalerak eta legez kontrako sailen erauzketa.

– Mahats bilketaren deklarazioa.

– Aipatutako Errege Dekretuak 28. artikulua 3. apartatua jasotzen dituen betebeharrak; zehazki, ekoizpenaren helburuari buruzko informazioa jasotzeko betebeharrak, kasu hauetan:

a) Zenbait JDBekin gainjartzen diren JDB zonetan dagoen azalera landaketa berria egiteko baimenak.

b) Ardoak JDBekin ekoizteko landutako mahatsa ez erabiltzeko eta ez merkaturatzeko konpromisoa dagoenean, hari eutsiko zaio mahastiko baimenen araubidea indarrean dagoen bitartean.

c) Landatze eskubide bat aldatzeagatik mahasti sailetarako baimenak ematen direnean; bere ustiatzean eskubideak eman zitzaizkion titular horrek berak erabili behar ditu eskubide horiek.

3.3. Aurreko 3.2. artikuluan ezarritakoa gorabehera, Mahastien Erregistroak nahitaezko informazioa jaso beharko du, Batzordearen 2017ko abenduaren 11ko 2018/273 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak eta aplikatzeak diren edo horiek ordezkatzan dituzten Estatuko edo autonomietako gainerako arauak ezarritakoaren arabera.

3.4. Mahatsondoak landatuta dauden azalera bat lantzen duten mahastizain orok Mahastien Erregistroan inskribatuta egon beharko du, erkidegoko edo Estatuko araudiaren arabera. Betebeharrak horren barruan sartzen dira landaketa esperimentalak eta norberak kontsumitzeko direnak. Horrez gain, dagokion izaera duen nekazaritza ustiategiarekin ere lotuta egon beharko dute.

3.5. Erregistratzearen ondorioetarako, eta indarreko araudiaren arabera, mahasti lurzatiak erreferentzia alfanumeriko bakarra izango du, eta Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistemako (SIGPAC) esparru oso batek edo esparru baten edo batzuen zati batek osatuko dute.

4. artikulua. Informazioa eguneratzea

4.1 Mahastien Erregistroa, bere helburuak betetze aldera, informazio fidagarriarekin egon dadin, mahastien titularrek erregistroan jasotzen den informazioa eguneratuta mantendu beharko dute.

4.2 Halaber, Arabako Foru Aldundiaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak etengabe eguneratuko du bere informazioa, interesdunek eskatutako aldaketak barne. Bestalde, aldizka ere eguneratuko du, beharrezkoak diren eta indarreko araudiak ezartzen dituen ekoizte ahalmenari buruzko kontrolen bidez.

Kontrol horiek administrazioak berak egin ditzake, lursailean, mahastien lurzatiak zuzenean aztertuz.

Mahastizainek, kontrolatuko dituztela esaten badiete, teknikarien lana erraztu beharko dute esparruko ikuskapenetan. Horrez gain, beharrezko agiriak eman beharko dizkiete, erregistratutako datuak fidagarriak direla egiazta ditzaten.

4.3 Kontrolaren emaitzak dagokion erregistroa zuzentzea ekarriko du, alde aurretik titularrari entzunda, eta indarreko araudiaren arabera aurkitzen diren irregulartasunak direla eta, dagokion zehapenak aplikatu ahalko zaizkio.

5. artikulua. Esparru bat gai izatea landaketa egiteko

5.1 SIGPAC sistemako esparru batean edo batzuetan mahasti bat landatu ahal izateko, esparru horiek landaketa hori egiteko gai direla ziurtatu beharko du eskatzaileak.

5.2 Aurreko atalean ezarritakoa betetzeko, arau hauek aplikatuko dira:

a. Azalera fisikoki mahastia landatzeko gai dela hartuko da baldin egiterakoan, bai SIGPAC erabilera, bai benetako erabilera, nekazaritzakoak badira. Salbuespen kasuetan beste erabilera batzuk onartuko dira baldin benetako erabilera fisikoa nekazaritzakoa dela egiaztatzen bada lursailean bertan.

b. Landatzeko esparruaren SIGPAC erabilera basogintza, zuhaixka larrea, zuhaitz larrea edo larrea bada, eskaerarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak emandako baimena ere aurkeztea eskatuko da. Han, azalera eta luberritzearen baldintzak ezarriko dira.

c. Mahastia landatzeko baimenak ematean, aplikatzekoa den mahastizaintza araudia kontuan hartuko da. Dena den, aplikatzekoak diren gainerako araudiak ere nahitaez bete beharko dira, bai hirigintza arlokoa, bai ingurumenekoa, errepideena, landare osasunarena, paisaia kontserbatzekoa edo beste edozein. Eskatzaileak nahitaez bete beharko ditu, eta landatzeko baimena emateak ez du ekartzen beteko dituela egiaztatzen duenik.

d. Jadanik mahatsondoak landatuta badaude, ezingo da eskuratu mahatsondoak berriro landatzeko baimenik.

6. artikulua. Mahatsondoak erazteko baimena

6.1. Mahasti azalera bat erazi baino lehen, baimena eskatu beharko da Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan, lan horiek egin nahi diren mahastizaintza kanpaina amaitu aurretik.

6.2. Eskatzaileak bere izenean inskribatuta izan beharko du lurzattia Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan.

6.3. Eskatzailea lurzatiaren jabea ez bada, jabearen baimena izan beharko du, edo erazteko baimena egiaztatzen duten agiriak, salbu behar bezala justifikatzen bada ez dela beharrezkoa.

6.4. Erazteko baimena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da eskaera osoa eta zuzena onartzen denetik aurrera.

7. artikulua. Erazteko administrazioaren ebazpena

7.1. Erazteko baimena emandakoan, titularrak gauzatu beharko du, eta gauzatu duela jakinarazi beharko dio Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari, eskatu duen kanpainaren uztailaren 31 baino lehen. Erazitako mahasti azalera egiaztatuta, administrazioak eraztearen ebazpena emango du, baliozkotzat hartutako azalerari dagokionez. Horrek, gerora, landatzeko baimena ekarri ahalko du.

7.2. Ezingo da barne hartu eraztearen ebazpenean zuloz edo hutsunez betetako azalera, mahastiaren azaleraren ehuneko 20 baino handiagoa bada. Artikulu honen ondorioetarako, mahastizat hartuko da mahastizain berak landatutako lursail azalera jarraitua, eta urte berean aldi berean landatutakoa. Zuloz betetako azalera mahastiaren azaleraren ehuneko 20 baino txikiagoa bada, mahasti azalertzat hartuko da osorik.

Aipatutako azalera neurtzeko, dagokion mahastiaren landaketa esparrua eta tolerantzia teknikoa kontuan hartuko dira.

7.3. Eraztearen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da mahastia erazi dela jakinarazten denetik aurrera.

7.4 Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak, eskaera osorik edo partzialki baietsi ez zaien eskatzaileei, horretarako arrazoiak zein izan diren eta zer errekurtso jar dezaketen jakinarazi beharko die.

7.5 Erauzketa egin izana jakinarazten ez badute, indarreko araudiak ezarritakoaren arabera zehapena jarriko zaie. Behin baimenduta, ez badute gauzatzen, eskaerari automatikoki baja emango zaio, baimena egin zen mahastizaintza kanpaina amaitu eta hiru hilabeteko epean.

8. artikulua. Birlandatzeko baimena

8.1 Birlandatu nahi bada, baimena eskatu beharko da aldez aurretik. Baimena eskatu behar duen erauzketaren titularrak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari aurkeztu beharko dio, erauzketaren ebazpena jakinarazi den kanpainaren hurrengo bigarren kanpaina amaitu baino lehen. Epe hori igarotakoan, birlandatzeko baimena ez badu eskatu, eskatzeko eskubidea galduko du.

8.2 Erauzteko eskaera aldez aurretik egin gabe mahastia erauzi badu, eta birlandatzeko baimena eskatzen badu, bakarrik emango zaio baimena mahastizainak birlandatzeko eskaeraren aurreko bi kanpainako epean erauzi zela eta erauzteko eskatutako gainerako baldintzak betetzen zituela egiaztatzen badio Mahastizaintza Zerbitzuari. Bestela, zehapena jarriko zaio, aplikatzeko arautegiak ezarritakoaren arabera.

8.3 Birlandaketa gauzatuta, interesdunak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, betiere administrazio baimenaren baliozkotasuna iraungi aurretik. Egun horren ondoren jakinarazten badu, landaketa balio epearen barruan egin duela egiaztatu beharko du titularrak. Bestela, araz kanpoko mahastizat hartuko da.

8.4 Emandako baimenek hiru urteko balioa izango dute, baimena emateko ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera. Nolanahi ere, balio denbora, gehienez, 2030eko abenduaren 31 arte izango da.

8.5 Birlandatzeko baimenarekin batera 2015eko abenduaren 31 baino lehen sortutako eskubideak bihurtzeko eskaera ere egiten bada, balio denbora bihurtzeko eskubidearen jatorrizkoa izango da, sortu zenean, gehienez, 2023ko abenduaren 31 arte, kontuan hartuz eskubide hori bihurtzeko eskaera 2020ko abenduaren 31 baino lehen egin behar dela beti, egun hori barne. Bestela, balioa galduko dute.

8.6 Eskatzaileak baimena eskatzen duen nekazaritzako azalera osoa izan beharko du eskura, hau da, jabetzaren edo lur jabetzaren bestelako araubidearen (hala nola gozamina, errentamendua, apartzeria edo zuzenbidearen arabera bestelako modu bat) ehuneko ehun. Eskatzaileak baimena eskatzen duen nekazaritza azalera errentamendu edo apartzeria araubidean badu, jabearen baimena aurkeztu beharko du eskaerarekin batera landaketa egin ahal izateko.

8.7 Birlandatzeko baimena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da eskaera osoa eta zuzena onartzen denetik aurrera.

9. artikulua. Aurretiko birlandaketa

9.1. Aurretiko birlandaketa egiteko, baimena eskatu beharko da aldez aurretik Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan. Horrez gain, baimena emanda ere izan beharko da. Eskaeretan, erauziko den azalaren tamaina eta berariazko kokapena adierazi beharko dira. Bestalde, baimen eskaeraren xede den birlandatuko den azalera ere adieraziko da.

9.2. Eskaerarekin batera, landatutako mahastia ekoizten hasi aurretik erauzteko konpromisoa ere aurkeztuko du. Konpromiso horrekin batera, berme bat ere aurkeztu beharko da banku erakunde baten abal, kausio aseguru, eskudiruzko sarrera edo bestelako finantza berme baten bidez. Berme hori 45.000 eurokoa izango da hektareako, landaketa berriaren balioa kontuan hartuz, eta 1.800 eurokoa hektareako, erauzi beharreko mahastiagatik. Erauzteko betebeharra ez badu betetzen adierazitako apean, bermea gauzatuko da.

9.3. 6, 7. eta 8. artikuluetan ezarritako baldintzak bete behar dira birlanaketa eta erauzketa egiteko.

9.4. Erauziko den mahastiari edo aurretiko birlanaketaren ondorioz landatutako mahastiari buruz Mahastien Erregistroan egingo diren inskripzioak ezingo dira aldatu aurretiko birlanaketa ekarri zuen mahastia erauzteko konpromisoa bete artean.

9.5. Interesdunak uko egin diezaioke aurretiko birlanaketa baimenari, mahastia landatu arte. Landatzen denean, konpromisoa ukazina izango da, eta ezarritako epean erauzi beharko da.

10. artikulua. Mahasti landaketa berrien eskaerak

Landaketa berrien baimenatarako prozedura, aplikatzekoa den Estatuko edo autonomiako araudian ezarritakoa izango da. Eskaera horiek urtero aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan, araudi horrek ezartzen duen epean.

11. artikulua. Landatzeko arau teknikoak

11.1. Landaketak Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako barietateekin bakarrik egingo dira.

11.2. Landaketetan erabiltzen diren txertakak legez baimendutako mintegietatik etorri beharko dira. Hori egiaztatzeko, mintegiak egindako landaketa jakinarazpenaren zigilua erakutsiko da. Hor, landaketa zer egunetan hornitu den ere jasoko da. Zigilu horren bidez, mintegiak bere gain hartzen du eragiten dion legedi osoa betetzen duela, hornitutako landarearen ezaugarriei dagokienez.

11.3. Behin landaketa jakinarazita, faltak sartzen badira, ez da landaketatzat hartuko, betiere lehen bi urteetan landareen ehuneko 50 ez badu gainditzen, hala aitortutako salbuespen arrazoi bat badago izan ezik.

12. artikulua. Landaketa inskribatzea eta lurzatiak neurtzea

12.1 Mahastizainak landaketa jakinarazita, teknikari eskudunak egiaztatuko du egindako landaketa eta eskatutakoa bat datozen, azalera, barietatea eta SIGPAC esparruak aztertuz. Horrez gain, eskatutakoarekin ez badatoz bat, erabilgarri dauden aztertuko du.

12.2 SIGPAC irizpideen arabera neurtutako landaketarako balioztatutako azalera egiaztatua txikiagoa bada eskatutakoa baino, benetan gauzatutakoa balioztatuko da. Mahastizainari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik erabili gabeko gainerako baimenak/eskubideak erabilgarri egongo dira berriro, egiaztatu ziren unean sortu izan balira bezala. Azaleraren akatsa mahastizainari egotzi ahal bazaio, zati batean gauzatutakotzat hartuko da, eta landatu gabeko gainerako azaleraren baimenaren iraungitze data bera mantenduko da.

12.3 Kontuan hartu beharreko landatutako mahasti azalera izango da landaketa azalera hutsa, hau da, mahats orpoek benetan hartutako azalera gehi lanetarako eta makinak mugitzeko utzitako landatu gabeko 5 metroko tartea ertz eta buruetan. Mota horretako mahasti azalera SIGPAC esparruko mugarekin edo mahasti lurzatiaren eratean duen landatutako azaleraren mugarekin amaitzen direla hartzen da. Hori guztia hurrengo paragrafoan ezarritakoa gorabehera.

12.4 Nekazaritzako lurzati bat ez bada osorik landatzen, mahasti azalera hartuko da mahats orpoek hartutako azalera, gehi kale baten erdia, erabilitako landaketa esparruaren arabera, edo aurreko puntuan adierazitako alboko 5 metroko tartearen muga, dagokion landaketarekin jarraitu ahal bada edo ez kontuan hartuz. Geroago landaketa horrekin jarraitzen bada, artikulua aplikatuz kontuan hartu beharreko azalera hartu beharko da kontuan.

12.5 Teknikoki behar bezala justifikatutako arrazoi agronomikoak direla eta, beste neurri batzuk erabiltzen utziko da, muga eta buruei dagokienez, bereziki mekanizazioa hobetzen badute, edo sakan edo maldetatik hurbil egoteagatik istripu arriskua murrizten badute.

12.6 Egiaztatutako azalera baimendutako azalera baino handiagoa bada, erregularizatu beharko da, modu hauetara:

– Gauzatzeko dauden eskubide edota baimenak baditu, gehiegizko mahastia eskubide/baimen horren kontura erregularizatu ahalko da, betiere azalera horrek dagozkion administrazio baimenak baditu, erabilgarri badago eta 8. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

– Nolanahi ere, soberazko azalera erauziz egiaztatu daiteke. Horretarako, lau hilabeteko epea emango da arauz kanpo landatutako mahastia dagoela jakinarazten denetik.

– Arauz kanpoko mahastiak aurrera jarraitzen duen bitartean ez dago landatzeko beste baimenik emango.

– Ez balioztatzeko arrazoia landatzeko eskubidea/baimena falta dela ez bada, baizik eta azalera edo lurzati erabilerarik ez izatea, landatutako mahastiak egoera horretan jarraituko du bere egoera legezartu arte. Horrela, beharrezkoak diren eskubideak/baimenak erabilitzat hartuko dira, eta aurretik aipatutako 4 hilabeteak igarotakoan, legez kontraktat.

Aurreko egoerak zuzendu ezean, aldeko baldintza guztiak dituen mahastiaren zatia bakarrik inskribatuko da. Gainerakoa, legez kontrako mahastizat hartuko da.

13. artikulua. Mahastien erregistroa aldatzea

13.1 Aldaketatzat hartzen dira Mahastien Erregistroan eragiten dutenak, erauzketak edo landaketak ez badituzte ekartzen, hau da, jadanik erregistratuta dauden finketan egindako aldaketa guztiak, titular edo jabetza aldaketarengatik edo akatsak zuzentzeko egindakoak.

13.2 Aldaketa eskaerak noiznahi aurkez daitezke urtean zehar.

13.3 Mahasti baten erregistroko titulartasuna aldatzeko eskaerekin batera, titulartasun hori izateko eskubidea justifikatzen duten behar beste agiri aurkeztu beharko da. Halaber, jabearen baimena eskatuko da.

13.4 Mahastizainek eta mahastien jabeek edozein aldaketa jakinarazi behar diote Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari, bere titulartasunari dagokionez bereziki. Halaber, aurkitzen diren akats guztiak aitortu behar dira, zerbitzu horrek zuzen ditzan.

13.5 Aurkezteko dokumentazioa falta duten eskaerak edo interesdunak egin beharreko ekintzak egiteko dituztenak uko egindakotzat hartuko dira eskaera aurkeztu zuenetik gehienez sei hilabete igarotakoan.

14. artikulua. Kontrol planak

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak beharrezko kontrol jardunak egingo ditu foru dekretu honetan eta aplikatzekoak diren autonomia, estatu eta europar araudian ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.

15. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Foru dekretu honetan ezarritako baldintzak urratzen badira, zehapena ezarriko da, aplikatzekoak diren autonomia, estatu eta erkidegoko araudietan ezarritakoaren arabera.